



OÑATI. GAZTEEN LOKALAK

GAZTEEN LOKALEN FENOMENOAREN INGURUAN HAUSNARTZEKO ETA ELKARBIZITZA PROTOKOLOA OSATZEKO GOGOETA PROZESUA, 2014-2015

2015-02-25. / 2. SAIO BATERATUA



BILERAREN XEHETASUNAK:	DINAMIZAZIOA:
<ul style="list-style-type: none">- Bilera zenbakia: 2. Saio bateratua- Xede taldea: Gazte lokalen erabiltzaileak, bizilagunak, jabeak eta adin txikiko erabiltzaileen gurasoak- Data: 2015-02-25- Lekua: Gaztelekua- Hasiera ordua: 18:30- Amaiera ordua: 20:45	<ul style="list-style-type: none">- Parte hartzaile kopurua: 8 lagun, 5 emakume eta 3 gizon- Dinamizatzaileak: Arkaitz Martinez de Albeniz eta Markel Ormazabal (Aztikerreko bideratzaileak)- Udal ordezkariak: Nerea Zubia (Parte hartze arloko zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Xabi Piko (Gazteria zinegotzia), Idoia Lazpita (udaltzainburua) eta Iñaki Landa (udal arkitektoa)

1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Nerea Zubiak saioaren ongi etorria egin du.

Abiatutako partaidetzazko prozesuaren fase berrian sartzen garela gogorarazi eta orain arte emandako urratsen laburpena burutu du.

Era beran udalaren aldetik helburua ez dela hasiera batean behintzat, Araudi edo ordenantza bat burutzea, baizik eta lokalen inguruko baldintza minimoak definitu eta elkarbizitzarako prozedura bat zehaztea.

Arkaitz Martinez de Albenizek gaurko saioaren kokapena egin du.

Gaurko saioaren helburua urrats bat eman eta proposamenak egitea eremu desberdinetan:

Alde batetik bizikidetzaren protokoloari dagokionean, eta, bestalde, lokalek izan beharreko azpiegitura baldintzen inguruan.

Orain arteko prozesuaren ibilbidea gogora ekarri du dinamizatzailerak

Aurreko saioan gazte lokalen inguruan alde bakoitzak dituen beharrak mahaigaineratu eta konpartitu genituen, modu horretan alde guztiek zer konpartitzen duten adieraziz.

Gaurko saioan oinarri horretatik abiatuta burutu nahi dira proposamenak.

*La sesión de hoy pretende dar un salto y centrarnos en realizar propuestas en dos direcciones:
Propuestas de mejora de la convivencia y propuestas sobre las condiciones de acondicionamiento de los locales.*

2. AURREKO SAIOKO LABURPENA

Aurreko saioan bi emaitza nagusi lortu ziren:

- ✓ Aldeen beharrak zehaztea (irudian kanpoko zirkuluetan agertzen direnak)
- ✓ Aldeen artean konpartitzen diren beharrak identifikatzea, **“zerk elkartzen gaitu?”** galderari erantzunda. (irudian barruko zirkuluan agertzen dena)

Hurrengo irudiaren bitartez adierazi da aurreko saioko ondorio nagusiak:



3. PROPOSAMENAK ARLOKA

Talde handian orain arteko saioetan agertu diren behar eta gatazkak eragiten dituzten gaien inguruan proposamenak jasotzeko ariketa egin da.



Identifikatu eta landu diren gaiak hauek dira:

- SOINUA
- KOMUNIKAZIOA ETA ERRESPECTUA
- ESPAZIOAREN ERABILERA

Gai hauetako bakoitzean (talde bakoitzean) aldean arteko elkarbizitza egokia egoteko proposamenak burutu dituzte.

Proposamenek aintzat hartu dituzte alde bakoitzaren beharrak eta aldean artean konpartitzen diren aspektuak.

Hona hemen eremu bakoitzean egindako proposamenak:

SOINUA	ESPAZIOAREN ERABILERA	KOMUNIKAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> • SOINU EGITEKO ORDUTEGIA EZARTZEA (Etxebizitzetan dagoenaren antzekoa) • LOKALAREN ERABILERARAKO ORDUTEGIA EZARTZEA • KALEKO ZARATA EZIN DA MUGATU • LOKALEN INSONORIZAZIOA BURUTZEA 	<ul style="list-style-type: none"> • KOTXEAK BEHAR BEZALA APARKATUAK UZTEA • BIZIKLETAK APARKATZEKO ESPAZIO ZEHATZAK ERAIKITZEA • LOKAL DENEK KOMUNA BEHAR DUTE KANPOAN BEHARRAK EZ EGITEKO 	<ul style="list-style-type: none"> • GAZTE SAILETIK BITARTEKARITZA ESKAINI GAZTE ETA BIZILAGUNEN ARTEKO ARAZOAK BIDERATZEKO • BIZILAGUNEN KOMUNITATEKO BILERAN GAZTEAK PARTE HARTU • KOMUNITATEA ETA GAZTEEN ARTEKO HARRERA PROTOKOLOA ZEHAZTU

Proposamen hauek egin ostean eztabaida gehien eragindako eremuan, SOINUaren gaian alegia, elkarbizitza ematen ez den kasuetan jarraitu beharreko prozeduraren inguruan aritu gara.

BETEARAZPENA	
<p>SANTZIOAK JARTZEA KEXAK DAUDENEAN</p> <p>Proposamen honekin irizpide desberdinak planteatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2.kexarekin kaleratzea ematea eskatzen duen posizioa agertu da. • Bestetik prozedura malguagoa izatea proposatzen duen posizioa agertu da, kasu honetan udalak jokatu dezaken bitartekaritza paperari funtzio inportantea emanez. 	<p>ARAUAK BETETZEN EZ DEN KASUETAN LOKALETIK KALERATZEKO AUKERA EGOTEA</p>

Estas son las propuestas realizadas:

SONIDO:

- *Concretar horario de sonido*
- *Crear horario de cierre de los locales*
- *Insonorización de los locales*

COMUNICACIÓN Y RESPETO

- *Mediación del departamento de Juventud*
- *Participar los jóvenes en las reuniones de comunidad*
- *Realizar un protocolo de convivencia entre jóvenes/vecindario*

UTILIZACIÓN DEL ESPACIO PÚBLICO:

- *Controlar el aparcamiento de los coches*
 - *Habilitar espacios para aparcar bicicletas*
 - *No orinar en la calle (habilitar los locales)*
- La sesión de hoy pretende dar un salto y centrarnos en realizar propuestas en dos direcciones:*

4. LOKALETAKO BALDINTZAK

Talde handian jarraituta partaideei honako galdera luzatu die dinamizatzaileak:

NOLAKO BALDINTZAK IZAN BEHAR DITU LOKAL BATEK, AZPIEGITURA ALDETIK, BERTAN JARDUERA SEGURU ETA DUIN BAT GARATU AHAL IZATEKO?

Partaideek proposamenak egin aurretik dinamizatzaileak argipen bat egin du, **SEGURTASUNA** ulerkera desberdinak dituela adieraziz.

Segurtasuna lokal barruan, alegia, erabiltzaileen segurtasuna bermatuko duten neurriak.

Segurtasuna lokal kanpoan, alegia, bizilagunen segurtasuna aintzat hartuko duten neurriak.

Hona hemen taldekideek adierazitakoak:

- Komuna
- Argindarraren potentzia altua
- Ate segurua
- Aireztatzea
- Lurrazpiko garajeak ez izatea
- Extintorea
- Irteera argiak
- Sukaldea ez izatea edo baldintza zehatzak izatea horretarako
- Teknikarien bermea (ikuskaritza) izatea lokalen baldintzen inguruan

Estas son las propuestas sobre las condiciones mínimas de acondicionamiento de un local:

- *Baño*
- *Aumentar la potencia eléctrica*
- *Puerta segura*
- *Ventilación adecuada*
- *No utilizar garajes como locales*
- *Extintores*
- *Luces de salida*
- *No tener cocina o tener condiciones concretas para ello*
- *Garantía sobre las condiciones de técnicos municipales (inspección)*

5. ELKARBIZITZA PROIEKTU PILOTOAK

Egitasmo honekin lotura duen esperientzia baterako gonbitea egin da dinamizaziotik saioa bukatu aurretik.

Fenomeno honen oinarria harremanak dira eta elkarbizitzari garrantzi berezia eskaini nahi zaio, honegatik dinamizaziotik gazte eta bizilagunen arteko elkarbizitza hobetzeko proiektu pilotoak martxan jartzeko aukera azaldu da.

Proiektu honen helburua komunitate baten barruan bizi diren pertsonen arteko elkarbizitza hobetu eta elkartasun sareak sortzea da.

Pertsonen artean nolako laguntza eta harremana sustatu daitekeen aztertze bileraren bat egitea litzateke asmoa, pertsonen artean ikusten zertan eta nola lagundu diezaioketen elkarri.

Interesa duten pertsoneri abisua eman dezatela eskatu zaie.

6. ITXIERA ETA HURRENGO URRATSAK

Dinamizatzaileak hurrengo hitzorduak gogoratu dira: talde eragilez gain, hurrengoa 3.Saio bateratua izango da bizilagun, jabe eta adin txikikoen gurasoekin batera egingo da **Martxoaren 11an, arratsaldeko 18:30etan** Gaztelekuan.

La próxima reunión conjunta será el día 11 de marzo a las 18.30 en el Gazteleku

7. SAIOAREN BALORAZIOA

Partaideei gaurko saioa baloratzea eskatu zaie.

Hona hemen bildutako erantzunak:

- Ondo iruditzen ari zait prozesu hau
- *Pixkanaka ari gara bidea egiten*
- *Gai zaila da adosteko*
- *Gai korapilatsua da: edo borondatearen esku uzten da edo legea betetzen da*
- *Gai zaila da baina zanjatu behar da*

Saioan parte hartu izanagatik eskerrak emanaz, bukatutzat eman da bilera 2015eko otsailaren 11an, 20:45etan.